



## **BATZAR OROKORRAREN AKTA** ***ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL***

Casares Kultur etxean, 2000ko otsailaren 12an Altzako Historia Mintegiaren ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion goizeko 11.00tan, bertan Jon Serrano, Juan Carlos Mora, Javier Cantera, Antxon Alfaro, Jose Mari Cendoya, Mari Paz Sainz Ubarrechena, Angel Calvo, Pili Lazaro, Javi Castro, Cayetano Diez, M<sup>a</sup> Luisa Erice, Joaquin Garrido, Kepa Amondarain, eta Iñigo Landa bazkideek parte hartu zutela. Ezin dutela etorri jakinarazi dute: Elena Arrieta, Joxerra Fernández, Charo Roquero.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 11.00 de la mañana del día 30 de enero de 1999, se celebró la Asamblea General de Altzako Historia Mintegia con la asistencia de Jon Serrano, Juan Carlos Mora, Javier Cantera, Antxon Alfaro, Jose Mari Cendoya, Mari Paza Sainz Ubarrechena, Angel Calvo, Pili Lazaro, Javi Castro, Cayetano Diez, M<sup>a</sup> Luisa Erice, Joaquin Garrido, Kepa Amondarain, e Iñigo Landa. Excusan su asistencia: Elena Arrieta, Joxerra Fernández, Charo Roquero.*

### **1. Bukatu berri den lan-urtearen aktibitateen memoria /** ***Memoria de las actividades realizadas***

#### **a) Tokiko Bilduma / Colección Local** (Arduraduna: Juan Carlos Mora)

Tokiko Bildumak urte honetan bultzada handia jaso du, bere kudeaketarako Kasares Kultur Etxea eta Donostia Kulturarekin akordio bat sinatu eta gero. Akordio honek lana sakon eta tekniko bat egiteko aukera eman digu. Ondorioz, bere itxura eta bertan egiten diren lanak erabat aldatu dira.

Kokapen fisikoak nabarmenki hobetu du. Materiala ondo kokatzeko apal berezi bat erosi da, baita karpeta berezi batzuk ere. Hala ere, inportantena materialaren tratamendua izan da. Zazpiehun dokumentu berriak jaso ditugu (argazkien bilketa azpimarratzekoa da) eta bakoitzaren fitxa bete ondoren gehienak jadanik kontsultatzeko prest daude.

Beste aldetik, hemengo dokumentuen kontsulta laguntzeko asmoz Historia gaiez osatutako liburutegi txiki bat sortzen hasi gara, Kasareseko liburutegiaren atal bat izango dena.

Aurten, gure helburua orain arte egindako lana finkatzea eta sendotzea izango da.

*La Colección Local de Altza ha conocido este año un importante impulso gracias al acuerdo de gestión que hemos firmado con el Donostia Kultura y la Casa de Cultura. Este acuerdo nos ha permitido llevar a cabo una labor más técnica y sería que ha tenido como consecuencia un cambio en su aspecto exterior y en la forma de trabajar.*

*Ha mejorado la ubicación física de la colección. Se ha comprado un sistema de baldas especial así como un conjunto de carpetas más adecuadas. Pero lo más significativo ha sido el tratamiento dado a los*

materiales. Se han recogido setecientos nuevos documentos (a destacar el capítulo de fotografías) que tras su catalogación están en condiciones de ser consultadas por el público.

Por otro lado y con el fin de complementar la consulta de los documentos hemos iniciado la formación de una pequeña biblioteca de historia que dentro del catálogo general de la biblioteca municipal estará ubicada en la sala de la Colección Local.

En adelante debemos seguir afianzando la Colección en la línea de lo realizado hasta el presente.

## **b) Ibilaldiak / Excursiones** (Arduraduna: Angel Calvo)

Bi ibilaldi antolatu ditugu:

- San Milian markesaren jauregira (Lasao) eta Azpeitiko Loiola. Bisitaldia Norberto Chiapuso gidatua izan zen.
- Altzako Euskal Jaien egitasmoaren barruan “Altza urbanoaren historia berria” izenburuko ibilaldia antolatu genuen.

*Hemos organizado dos excursiones:*

- *Visita al palacio de la marquesa de San Milian en Lasao, y a la basílica de Loiola en Azpeitia. La visita fue guiada por Norberto Chiapuso.*
- *En el marco de las Euskal Jaiak de Altza organizamos un recorrido con el título “La reciente historia del Altza urbano”.*

## **c) Agiritegiak / Archivos** (Arduraduna: Iñigo Landa)

Jakina da Altzari buruzko agiri asko eta asko sakabanaturik dagoela Gipuzkoako eta Gipuzkoatik kanpoko agiritegietan. Aurten bultzada handia eman diogu bilatzeari eta kopiaketari. Guztiak Tokiko Bilduman gordeko dira. Hauek dira aipagarrienak:

- Donostiako San Milian markesaren agiritegia: Norberto Chiapusori esker lortu dugu agiritegi honen indizea eskuratzea. Indizeak bederatzi liburukiaz osaturik dago eta gurekin edukitzeak aukera emango digu agirien bilaketa lasaiago bat egiteko. Hortik aparte, agiritegian bost aldiz izan gara agiriak irakurtzen eta interesgarrienak kopiatzen.
- Valladolideko Real Chancilleria: Aurten hustuketa handia egin dugu eta ia esan dezakegu XVI. mendeko agiri gehienak dagoeneko kopiaturik dauzkagula. Bestalde, data berriagoak duten agirien zerrenda luze bat egin dugu. Hau IRARGI dokumentazio zentroak interneten bidez eskaintzen duen on-line zerbitzuari esker egin ahal izan dugu.
- Donostiako agiritegia: Charo Roquero agiritegi honetan dauden karlistaden garaiko agiriak bildu eta transkribatu ditu.
- Horietatik aparte, bazkideek eta lagunek agiri solte batzuk ere bildu dituzte.

*Es sabido de todos que mucha documentación referente a Altza se encuentra muy repartida entre diferentes archivos de Gipuzkoa y de fuera de la provincia. Este año hemos hecho un gran esfuerzo en la búsqueda y copia de documentos, que han sido depositados en los fondos de la Colección Local de Altza.*

- *Archivo de la Marquesa de San Milián y Vistalegre: Gracias a Norberto Chiapuso hemos conseguido una copia del índice del archivo. El índice está compuesto de nueve libros y el poder tenerlo con nosotros nos va a facilitar mucho una búsqueda más reposada de documentación.*
- *Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Prácticamente hemos dado por finalizada la búsqueda de documentos en este archivo. Hemos copiado los documentos que nos parecían más interesantes del siglo XVI y hemos elaborado una lista exhaustiva con los documentos de siglos posteriores. Este vaciado ha sido posible gracias al servicio on-line del Centro de Documentación IRARGI ofrece a través de internet.*
- *Archivo Municipal de San Sebastián: Charo Roquero ha recogido y transcrito la documentación relacionada con las guerras carlistas y que tiene interés para Altza.*
- *Además se han podido reunir distintos documentos sueltos encontrados por algunos socios y amigos de nuestra asociación.*

**d) Hemeroteka** (Arduraduna: Javier Cantera)

Jarraitu dugu aurreko urteetan egindako lanarekin. Diario Vasco, Gara, Egunkaria, Deia egunkarietan eta Irutxulo aldizkarian argitaratzen diren notiziak bildu ditugu. Datorren urteari begira sistematizazioa eta kontsulta errazteko zenbait aldaketa batzuk aztertuko dira.

*Hemos continuado con la labor de reunir todas las noticias que se publican en la prensa local y más concretamente en los diarios Diario Vasco, Gara, Egunkaria, Deia y en la revista Irutxulo. De cara al futuro hemos estudiado realizar algunos cambios que mejoren la sistematización y la consulta de las noticias.*

**e) Industria museoa / Museo de productos industriales** (Arduraduna: Javier Cantera)

Atal honetan ez dugu aurrerapauso handirik eman, pieza gutxi batzuk baino ez baitugu bildu. Hala ere, oraingoz ez dugu amore emango eta saiatuko gara honetarako behar den denbora bilatzen.

*En este tema no hemos avanzado ya que salvo algunas contadas piezas que hemos recogido poco más hemos hecho. A pesar de ello no renunciamos a la idea y confiamos en encontrar el tiempo y la disposición que esta actividad precisa.*

**f) Beka** (Arduraduna: Juan Carlos Mora)

Aurtengo "Altzako Historia ikertzeko diru-laguntza" Alex Ibañez Etxeberria eta Itsaso Mendiluze Gonzalezi eman zaie "Altzari buruzko inkesta etnografikoa" izenburua duen proiektua aurrera eramateko. Jose Miguel Barandiaranek prestatutako inkestan oinarriturik, etxea eta familiari buruzko galdetegi bat pasa dute Altza inguruetako lau baserrietan (Bordaxar, Akular, Pelegriñene eta Kastillun), baserri hauetan hiru belaunaldi bizi direlarik. Une honetan landa ikerketa buruturik dago eta egindako lanaren aurkezpena Auzo Etxean emandako hitzaldian egin zen. Une honetan erredakzio fasean dago eta otsailean amaituta egongo da. Ondoren Artiga Bildumaren barruan argitaratzeko asmoa dugu. Aipatzekoa da orain arte eman diren beken artean hau dela euskaraz burutuko den aurrena.

Aurrera begira pentsatzen ari gara diru-laguntza hau guri interesatzen zaizkigun gaietara zuzentzea, alegia, Altzaren udal kudeaketa, Ondarearen katalogoa, Urbanismoaren analisisa.

*La "Bolsa de Ayuda a la investigación sobre Altza" de 1999 ha sido concedida a Alex Ibañez Etxeberria e Itsaso Mendiluze González por el proyecto de investigación titulado "Altzari buruzko inkesta etnografikoa". El proyecto consiste en pasar un cuestionario etnográfico sobre la casa y la familia, basado en la encuesta elaborada por Joxe Miguel Barandiaran, en cuatro caseríos altzatarras en los que vivan tres generaciones (Bordaxar, Akular, Pelegriñene y Kastillun). En este momento tienen terminado el trabajo de campo y han presentado el trabajo realizado en una conferencia que se ofreció en el Centro Cívico. Ahora se encuentra en la fase de redacción que estará terminada en febrero. Posteriormente tenemos la idea de publicar los resultados dentro de la Colección Artiga. Es de señalar que es la primera investigación llevada a cabo en euskara de las realizadas hasta el presente con esta ayuda.*

*De cara al futuro proponemos dirigir esta ayuda a temas que nos interesan especialmente (Gestión del periodo municipal de Altza; Catálogo del patrimonio histórico-artístico-arquitectónico; Análisis urbanístico y arquitectónico), y para ello contactar con especialistas que estén en condiciones de llevar a buen fin esos estudios.*

**g) Argitalpenak / Publicaciones** (Arduraduna: Iñigo Landa)

- **Hautsa Kenduz:** Ekainean aurkeztu genuen bosgarren zenbakia. Aurkezpena Buenavistan izan zen eta bertan jende askok parte hartu zuen, ehun lagun baino gehiago. Juantxo Agirrek hitzaldi bat eman zuen ondare artistiko-historikoaren defentsa gaitzat hartuz. Liburua orain arte egindako mardulena da, 252 orrialde eta 21 artikulua. Aurreko zenbakien ildoari jarraituz urrats berri handi bat izan da zenbaki hau eta aurrera jarraitzeko ilusioa ematen du.

*En junio presentamos el número cinco de Hautsa Kenduz. La presentación fue en la sala de exposiciones del puerto en Buenavista y contó con una numerosa asistencia de público, por encima de los cien, lo que para nosotros supone un gran éxito. Este nuevo número supone un gran paso adelante porque tanto en el número de páginas, 252, como el de colaboraciones, 21, hacen de él el volumen más “grueso” de los publicados hasta el presente y viene a enriquecer lo hasta ahora publicado.*

- **Estibaus buletina:** Bukatu den urtean ere lau ale argitaratu ditugu. Zenbaki bakoitzetik bostehun kopia inguru egin ditugu, gehienak postaz banatu ditugunak. Buletinaren itxura eta banaketa aurreko urteetan egindakoaren antzekoa izan da.

*Durante el curso que ha finalizado hemos sacado cuatro nuevos números del boletín, con una tirada cercana a los 500 ejemplares por cada uno, distribuidos de forma similar a como lo hemos hecho en años anteriores.*

- **Egutegia:** 2000. urteko egutegia argitaratu dugu. Edizio honetan 600 ale argitaratu dugu eta Auditz-Akular inguruak hartu ditugu gai nagusi bezala. Egutegiak oso harrera ona izan du.

*Hemos publicado el calendario del año 2000 con una tirada de 600 ejemplares muy superior a la del año pasado. El tema central de las fotografías ha sido Auditz-Akular y con esta elección hemos pretendido resaltar los valores histórico paisajísticos de esta zona ante los planes urbanísticos que se están haciendo.*

#### **h) Altzanet** (Arduraduna: Antton Alfaro)

Joan den urtean ALTZANET proiektuan aurrerapen txikiak eman ziren. Webgune berria ez dugu oraindik prestatu, hala ere Internet sarea asko erabili dugu informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.

Bestalde, beste elkarteekin eta laguntzaileekin komunikazioa mantentzeko posta elektronikoa tresna baliagarria izan arren, elkartearen barrengo komunikazioa elkar trukatzeko erabilera oso murriztuta egon da oraindik bazkide gutxi baitaude.

*El pasado año no hubo grandes avances en el desarrollo del proyecto ALTZANET. Aunque hemos seguido utilizando la red para buscar información y comunicarnos, el desarrollo de una nueva página Web no se ha realizado todavía.*

*Por otra parte, aunque diversos contactos con otras asociaciones y personas los mantenemos a través del correo electrónico, entre los miembros de AHM no se ha extendido este medio de comunicación por lo que su uso para la comunicación interna por el momento es mínimo.*

#### **i) Bazkideak eta harremanak** (Arduraduna: Jon Serrano)

Poliki poliki hazitzen goaz. Une honetan 94 bazkide gara eta 164 harreman ditugu. Jarraituko dugu arlo hau zaintzen oso garrantzitsua baita gure lanerako. Gure taldearen lanak bide bat ireki du eta horregatik beste herrietatik eta auzoetatik kontaktoan jartzen dira gurekin egiten dugunaren berri jasotzeko.

Poco a poco vamos creciendo. Hemos llegado a ser 94 socios y tenemos en torno a los 164 contactos. Cuidar bien este tema es muy importante para nosotros por el tipo de trabajo que realizamos.

#### **j) Altzako Euskal Jaiak** (Arduraduna: Jon Serrano)

Aurtengo Euskal Jaietan ere parte hartu genuen. Ibilaldi bat prestatu genuen “Altza urbanoaren historia berria” izenburuarekin. Ibilaldian zehar Altzako kaleen aldaketak bertatik ezagutu duten lekukoekin elkarrizketak egin genituen baita bideoan grabatu ere. Elkarrizketatutakoak Altzagainako Jose Luis Ralla, Txingurriko Isidra Artano eta Antonio Unanue, Herrerako Pepita Sarriegi, Kontxi Andonegi eta Vicente Elosegi, eta Erroteta inguruko Marcial Arrieta.

*También este año hemos colaborado junto a otras asociaciones de Altza en la organización de las Euskal Jaiak. En esta ocasión preparamos un recorrido por la zona urbana de Altza contando con la participación de algunos alzatarras testigos directos de los cambios producidos en Alzagaina y Herrera, a los que entrevistamos y grabamos en vídeo.*

## 2. 1999 lan-urtearen aktibitateen ekonomi balantzea / *balande económico del curso 1999*

	<u>SARRERAK</u>	<u>GASTUAK</u>
Aurreko saldoa (98/12/31).....	151.385	
Bazkide kuotak		
• 1998. urtekoak .....	9.000	
• 1999. urtekoak.....	60.000	
Donostiako Kultur Patronatua		
Dirulaguntza – 1998 .....	80.000	
• Dirulaguntza – 1999.....	200.000	
Beka (1998).....		80.000
Beka (1999) .....		80.000
▪ Kutxa.....	150.000	
▪ Donostiako Kultur Patronatua.....	25.000	
Interesak .....	168	
Tokiko Bilduma – Kudeaketa.....	770.000	740.500
Fototeka.....	48.000	54.522
Artxibo Dokumentuak .....		20.083
Informatika ekipamenduak .....	70.000	169.417
Kudeaketa.....		27.585
Boletina ( <i>Estibaus</i> )		
▪ Estibaus (1998) .....		8.750
• Estibaus (1999) .....	60.000	61.964
Telefonoa.....		1.392
Egutegia.....	30.000	41.000
Besteak .....		13.512
	-----	-----
GUZTIRA. . .	1.654.945	1.334.470
=====	=====	=====

**SALDOA (99/12/31): 320.475 pta.**

## 3. 2000. urterako jarduera egitasmoa / *Plan de actividades para el año 2000*

### a) Altzako Tokiko Bilduma

**Arduraduna: Juan Carlos Mora**

*Aktibitate hau AHM-ren ekintza nagusietako bat da eta Donostia Kulturarekin sinatutako hitzarmenaren arabera burutuko da.*

**b) Ibilaldiak****Arduraduna: Ángel Calvo****Helburuak:**

- Altzako bizilagunei eta elkarteko bazkide eta lagunei Altzako eta Euskalerrriako kultura hobeto ezagutzeko aukera eskaini.
- Gure helburuak dauzkaten beste pertsona eta elkarrekin ibilaldiak egin egiten dutena bertatik ezagutzeko.

**Jarduerak:**

- Gorbeia (Bizkaia): elurtzuloak.
- Ibilaldia Altza-basoan zehar.
- Zehaztugabeko beste ibilaldiak.

**c) Agiritegiak****Arduraduna: Juan Carlos Mora****Helburua:**

- Altzari buruz agiritegietan dauden dokumentuak bilatu eta interesgarrienak kopiatu Altzako Tokiko Bilduma osatzeko asmoz.

**Jarduerak:**

- Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegia bisitatu.
- Donostiako Elizbarrutiko Artxiboaren hustuketa.
- Tolosan dagoen Gipuzkoako Agiritegi Orokorraren hustuketa.

**d) Hemeroteka****Arduraduna: Javier Cantera****Helburuak:**

- Prentsa idatzian Altzari buruz argitaratzen den guzia bildu (Diario Vasco, Gara, Egunkaria, Irutxulo).

**Jarduerak:**

- Prentsa idatzian Altzari buruz agertzen diren notizia guztiak bildu (Diario Vasco, Gara, Egunkaria, Irutxulo).
- Notizia bakoitzaren fitxa bat egin eta ahal den datu-base osatuena egin. Era berean notiziak eskaneatu eta datu-basera gehitu.
- Notizien originalak karpitetan kronologikoki ordenatu.

**e) Industria museoa****Arduraduna: Javier Cantera**

**Helburuak:**

- Etxeetako sortutako material industrialekin bilduma bat sortu, etorkizunean erakusketa bat sortzeko asmoz.

**Jarduerak:**

- Altzako enprekin kontaktatu honelako materialak eskuratzeko, batez ere ixteko dauden enprekin.
- Txatarregiak eta berziklapen zentroak bisitatu material interesgarrien bila.

**f) Argitalpenak****Arduraduna: Iñigo Landa****Helburuak:**

- Altzari buruz egiten diren ikerketen zabalkundea.

**Jarduerak:**

- Hautsa Kenduz VI: Idazleekin harremanetan jarri eta aurkibidea prestatu.
- Estibaus Buletina: orain arte bezala lau zenbaki kaleratzen jarraitu eta tirada handitu (500 ale).
- Artiga Bilduma: ale berri bat prestatu eta argitaratu.
- Egutegia: Argazki lehiaketa bat antolatu eta irabazleen argazkiekin 2001. urteko egutegia prestatu.

**g) Beka****Arduraduna: Iñigo Landa****Helburuak:**

- Altzari buruzko ikerketa zientifikoak bultzatzea.

**Jarduerak:**

- Aurtengo beka deialdia zenbait gai jakinetara mugatuko da, eta adituei soilik zuzenduta egongo da.
- Ikerketarako diru-laguntza 225.000 pezetakoa izango da.
- Emaitza argitaratzen ahaleginduko gara.

**h) ALTZANET****Arduradunak: Antxon Alfaro****Helburuak:**

- Jarduera teknologikoa gure eguneroko jardueran txertatzea.
- Altzari eta AHM-ri buruzko informazioa internet sarean eskaini.

**Jarduerak:**

- Aurreko urtean prestatzen egon garen web-orria sarean sartu, bertan Estibaus buletina, ibilaldiak, Hautsa Kenduz liburuen aurkibideak eta abar eskainiko direlarik.

- Baliabideak (ekipamenduak, software...) gaurkotu.

#### **i) Bazkideak, harremanak eta finantziazioa**

**Arduraduna: Jon Serrano**

##### **Helburuak:**

- AHM-k behar dituen euskarri sozial eta ekonomikoa bilatu.

##### **Jarduerak:**

- Bazkide berriak bilatu.
- Beste elkarteekin eta pertsonekin harremanak eta elkar-lana zaindu eta bultzatu.
- Elkartearen jarduera-plana aurrera eramateko behar den finantziazioa bilatu.

#### **j) Altzako Euskal Jaiak**

**Arduraduna: Jon Serrano**

##### **Helburuak:**

- Altzako beste elkarteekin batera euskararen erabilpena bultzatu.

##### **Jarduerak:**

- Euskal Jaien prestaketa lanetan parte hartu.
- Argazki erakusketa bat prestatu.

### **4. 2000. urterako aurrekontua**

*Presupuesto para el año 2000*

jarduera	azalpena	sarrerak	gastuak
Tokiko Bilduma	Kudeaketa	1.155.000.-	1.155.000.-
Ibilaldiak	Gidak, prestaketak...		60.000.-
Agiritegiak	Kopiak, transkripzioak...		80.000.-
Hemeroteka			125.000.-
Industri museoa	Erosketak...		60.000.-
Argitalpenak	Estibaus (publizitatea)	70.000.-	
	Estibaus (argitaratu)		150.000.-
	Hautsa Kenduz		15.000.-
Beka	Beka		250.000.-
	KUTXA	200.000.-	
	Hitzaldiak (Casares)	25.000.-	
	Artiga (argitalpena)		50.000.-
	Kudeaketa		10.000.-
Altzanet	Internet zerbitzailea		60.000.-
	Ekipamendua		100.000.-
Bazkideak, harremanak	bazkideen kuotak	85.000.-	
	Kudeaketa		100.000.-
Euskal Jaiak			15.000.-



DENETARA	1.535.000.-	2.230.000.-
<b>SALDOA</b>	<b>-695.000.-</b>	

#### 4. Bazkide berrien onartzea /

##### *Admisión de nuev@s soci@s.*

Aho batez onartuak izan ziren bazkide berri hauek:

*Fueron admitidos por unanimidad l@s siguientes nuevos soci@s:*

XABIER ARANA BERASTEGI  
 MAITE LOPETEGI CAMPANO  
 MANUEL IRANZO PERIS  
 FRANCISCO JOSE LASCONATEGUY GOZATEGUI  
 CESAR GONZALEZ TEJERA  
 MANOLI MARTIN ALONSO  
 MARIA PAZ SAINZ UBARRECHENA  
 KONTXITA ALKIZA ELIZALDE  
 JOSU TELLABIDE AZKOLAIN  
 KEPA AMUNDARAIN MITXELENA  
 AGUSTIN RODRIGUEZ APAOLAZA  
 FRANCISCO LASA ECHARRI  
 DOLORES ARRIETA GARMENDIA  
 BITTOR HIDALGO EIZAGIRRE  
 NATALIA MONTES CABALLERO  
 AINGERU IBARZABAL  
 FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE LUZURIAGA  
 JOSE IGNACIO MUGURUZA ECHEVERRIA  
 MIKEL GORROTXATEGI JAUREGI  
 MARIA LUISA GARCIA ERICE  
 JOSETXO MANGAS SANCHEZ  
 ALFREDO MORAZA  
 BLANCA ANDUEZA MARTINEZ

Estatutuetan eta orain dela bi urteko Batzarrean ordaindugabeko kuotei buruzkoak aplikatuz, Mikel Ibarguren Arrieta-ri baja eman diogu Mintegian.

*En aplicación de los estatutos de nuestra asociación y de la normativa sobre impago de cuotas aprobada hace dos Asambleas se da de baja a Mikel Ibarguren Arrieta*

#### 5. Bestelakoak / Varios

Javi Castrok Debako Kultur Elkartearen diru-kontuak erakusten ditu nola egiten duten ikus dezagun. Bide batez, Santiago-bidea ondarearen katalogoan sartuko dutela esaten digu, tartean Altzako zatia dagoela. Halakotan Ondarearen Legearen funtzionamendua azaltzen digu, egon daitezkeen arriskuak jabetu gaitzen.

Javi Castro toma la palabra para presentarnos las cuentas de la asociación Kultur Elkartea de Deba y nos comunica que el Camino de Santiago, incluido el tramo correspondiente a Altza, va a ser inscrito en el catálogo de patrimonio vasco. Explica también el funcionamiento de la ley y los mecanismos y trampas que se usan para aplicar y sortear la ley.

Gai zerrendako beste punturik gabe amaitutzat eman zen aurtengo Batzar Orokorra.

*Sin otro tema que tratar se dio por finalizada la Asamblea General*

Idazkaria

Lehendakaria

Iñigo Landa

Jon Serrano